

Orla banaketa Psikopedagogian eta Komunikazioan

2012/06/11

Iosu Zabala MUko errektoreak eta Nekane Arratibel HUHEZIKo dekanok zuzendu zuten ekitaldia, alboan zituztela **Nagore Iñurrategi** eta **Andres Gostin**, Psikopedagogiako eta Komunikazioko zuzendariak, hurrenez hurren. Euren banatu zituzten orlak.

Eneko Bidegain irakasleak irakurri zuen eguneko ikasgaia. Xabier Leteren poema batean oinarritu zen, Izarren hautsa, eta horrela amaitu zuen bere hitzaldia:

- Lehen erran dizuet, "ez dago inoiz arazorik; aterabideak daude bakarrik". Zuen oraingo adina nuenetik orain arte, niretzat ipar-orratza izan den esaldi hori izan bedi zuentzat ere ipar-orratz. Ez galdu burutik esaldi hori, eta bizitzan aurkitzen duzuen edozein oztoporen aurrean, edozein etsipenen aurrean, gogoratu: "ez dago inoiz arazorik; aterabideak daude bakarrik".



Argazkiak

Kantatu, berriz, **Goikobalu** taldeak egin zuen, berau Arrasatekoa. Yera Sanchez lankideak atera zituen argazkiak, eta hauek Flickr-en daude ikusgai.

Bideoa

Ikus-entzunezko komunikazioa egindako ikasleek, 4. mailakoak, bideo bat prestatu zuten agur ekitaldirako, ondokoa.

